**GAIA: ALONSOTEGIKO ARAU SUBSIDIARIOEN UNEAN UNEKO ALDARAZPENAREN ONESPENAREN PROZEDURAN INGURUMENEKO EBALUAZIO ESTRATEGIKOA MANUZKOA IZATEARI BURUZKO KONTSULTA**

Bizkaiko Foru Aldundi honen sarrera erregistroan 2015eko uztailaren 15eko data duen idazkia jaso zen; idazki horretan Angelina Iriondo Urraza andrearen Jaraunsleen Jabeen Erkidegoaren eskuorde moduan jarduten duen Rafaela Verano Iriondo andreak Alonsotegiko udalerriko Arau Subsidiarioen unean uneko aldarazpen bat ingurumeneko ebaluazio estrategikoari lotuta egoteari buruzko txostena eskatu zuen. Idazki horri erantsita proposatu den aldarazpenaren deskripzioa erantsi zen, eta baita "*Loibe Sektoreko P-5 lurzatian Alonsotegiko Arau Subsidiarioen zuzkidura-jarduketaren esparrua definitzeko unean uneko aldarazpena*" agiria duen CDa ere**.**

Aldarazpen horren xedea Loibeberri Sektoreko P-5 lurzatiaren antolamendua definitzea eta garatzea da; sektore hori erabat dago betearazita lurzati horren urbanizazioa eta adierazi den Loibeberri sektorearen eta hirigunearen arteko oinezkoentzako konexioa (zuzkidura-jarduketa) izan ezik.

Jaso den dokumentazioa aztertu ondoren uste da erreferentziako plana *ingurumeneko ebaluaziori buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 6. artikuluaren 2. atalean ezarri den ingurumeneko ebaluazio estrategiko erraztuaren kasuen barruan sartzen dela.* Halaber, aplikagarria den euskal arautegia sartzen da, *Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.*

**ASUNTO: CONSULTA SOBRE LA PRECEPTIVIDAD DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA EN EL PROCEDIMIENTO DE APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE ALONSOTEGI.**

Con fecha de registro de entrada en esta Diputación Foral de Bizkaia, de 15 de julio de 2015, se recibe escrito remitido por Doña Rafaela Verano Iriondo en representación de la Comunidad de Propietarios Herederos de Angelina Iriondo Urraza, solicitando informe sobre la necesidad de someter una modificación puntual de las Normas Subsidiarias del municipio de Alonsotegi al procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica. A dicho escrito se adjunta una descripción de la modificación propuesta así como Cd con el documento de "*Modificación puntual en la parcela P-5 Sector Loibe para definir el ámbito de la actuación de dotación de las Normas Subsidiarias de Alonsotegi*"**.**

El objetivo de la modificación es definir y desarrollar la ordenación de la Parcela P-5 del Sector Loibeberri, ejecutada en su totalidad a falta de la urbanización de esta parcela y de completar la conexión peatonal de dicho sector Loibeberri con el núcleo urbano (Actuación de Dotación).

Una vez analizada la documentación recibida se considera que el plan de referencia está incluido dentro de los supuestos de sometimiento a Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada establecidos en el artículo 6 apartado 2 de la *Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental.* Se incluye, asimismo, la normativa vasca de aplicación, *Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco* y *Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.*

Ildo honetatik eta adierazi den *21/2013 Legeko* 29. artikuluak ezarri duenarekin bat, ingurumeneko ebaluazio estrategiko erraztua hasteko eskabidea Alonsotegiko udalak egin behar du eta, horrekin batera , planaren zirriborroa eta gutxienez artikulu horretan ezarri den dokumentazioa izango duen ingurumeneko agiri estrategiko bat aurkeztuko dira.

Dokumentazio horren zati bat aurkeztu den dokumentazioan garatuta dago; dena dela maila teknikoan zentzuzkoak eta ingurumenaren arloan bideragarriak diren alternatiben ataletan, nagusi moduan, ingurumenari dagokionez aurreikusi daitezkeen eraginak (egoera akustikoa, proposamenaren jasangarritasuna,…), aplikagarriak diren neurri zuzentzaileak eta planaren ingurumeneko jarraipena osotu beharko dira.

Dokumentazioa Alonsotegiko udalarengandik jaso ondoren kontsultak egongo zaizkie, 30 eguneko epearen barruan, Herri Administrazio ukituei eta jende interesdunari, eta adierazi den epe hori igaro ondoren, ahalik eta arinen, ingurumeneko txosten estrategikoa jaulkiko da.

En este sentido, y atendiendo a lo que establece el artículo 29 de la citada *Ley 21/2013*, la solicitud de inicio de Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada deberá partir del Ayuntamiento de Alonsotegi y acompañarse del borrador del plan y de un documento ambiental estratégico que contendrá, al menos, la documentación establecida en dicho artículo.

Parte de la misma ya viene desarrollada en la documentación aportada, debiéndose completar, como principales, en los apartados de alternativas razonables técnica y ambientalmente viables, efectos ambientales previsibles (situación acústica, sostenibilidad de la propuesta,…), medidas correctoras aplicables y seguimiento ambiental del plan.

Una vez recibida esa documentación del Ayuntamiento de Alonsotegi, se efectuarán las consultas, con plazo de 30 días, a las Administraciones Públicas afectadas y al público interesado, emitiendo el Informe Ambiental Estratégico a la mayor brevedad posible, una vez transcurrido el plazo referenciado